

# Aretxa gazeta

Aretxabaleta • 1997ko irailak 25 • 129. zka.



## Gasteiz-Eibar autopista

Pedro eta Inazio Galdos Jesuita birkiak



Kirolak: Ane Miren Güemes

# TELAETXE S.A.

**SAIL BERRIA: TAPIZEN ERAKUSKETA**

## OIHALAK eta OIHAL PUSKAK

Elgetako bidea (gasolindegitik 300 metrora, "Cotones Agirrezabal" en ondoan)

Telefonoak: (943) 76 39 40/ 76 39 41 • Faxa: 76 56 38 • BERGARA



Aukera haundia oihaletan eta pusketatan, metroka zein pisura.

**EDREDOI NORDIKOAK.**

**TAPIZEN ERAKUSKETA:**

Zetak, kortinak, toailak, yakareak, izarak, tapizak, etab.

**FABRIKAKO PREZIOAN!!!**

**ORDUTEGIA**

Astelehenetik ostiralera: 09:00-12:00 eta 15:00-19:30

Zapatuetan: 10:00-13:00 eta 15:00-19:30

**ONDO PASAU SAN MIGELAK!**



# Zer iritzi duzu Gasteiz-Eibar autopistaren inguruan?

**Valentin Marrupe**

(Langilea)

Ingurugiroarentzako kalte handia izango da duda barik. Alde batetik, bide egokiak behar direla uste dut, baina kalte handia egingo du. Nik lehengo bideak konponduko nituzke.



**Maribi Ortega**

(Etxekoandrea)

Ondo iruditzen zait. Nik asko erabiltzen dut autopista, eta gure bideen onerako bada ondo dagoela uste dut.

Hiriburuetara bueltaka ibiltzen garenok, beharrezkoa dugu horrelako bide bat.



**Maria Jesus Txintxurreta**

(Langilea)

Autopista egitea ondo iruditzen zait, baina trazatua orain dagoen baino haruntzago joan beharko litzateke. Herria larreiko ondoan hartzen du eta Egi-leor baserrian ere oso gertu pasatzen da. Trafikoarentzako irtenbide bat da.




**Alberto Izagirre**

(Langilea)

Oso ondo planifikatua egon beharko du, eta ingurugiroa ahalik eta gutxien kaltetu. Beharrezko beharrezkoa denik ez dut uste. Dauzkagun bi-deak hobetu behar dira.



Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Kultura sailak diruz lagundutako aldizkaria



Aretxabaletako Udalak diruz lagundutako aldizkaria

## www. saretxo. es

Duela sei hilabete inguru, Aretxabaletan informatika zabaldu asmoz, Saretxo elkartearen eratzearen asmoaz berba egiten genizuen. Dagoeneko sortu dugu elkartearen udaltxeak utzitako lokal bat daukagu eta hainbat ordenagailu ere bai. Gainera, "www. saretxo. es" eremua lortu dugu, bertan "web" orrialde kopuru mugagabea sartzeko aukeraz.

Guzti hau esan ondoren, herriko elkarte desberdinekin harremanetan jarri nahi dugu guztion artean informazio mugikorra sartu dezagun, "web" orrialdeko informazioa mugitzeko aukera izanez.

Honez gain, elkartearen bazkideek (elkartera laster zabalduko baita), beren informazioa jar dezaten nahi dugu.

Laster herriko elkarteekin harremanetan jarriko gara. Ordurarte informazio gehiago nahi izanez gero, "saretxo. saretxo. es" edo 79 10 51 telefonoan gurekin harremanetan jar zaitezke.

**SARETXOKO ZUZENDARITZA**

e s k u t i t z a



**Argitaratzaileak:** Aretxagazeta Elkarteak, Kultur etxea, Aretxabaleta. Tfnoa: 79 01 05, 151 postakutxatila. **Zuzendaria:** Ana Eriz. **Erredakzio-kontseilua:** Ines Maria Gartzia, Arantxa Eguren, Naiara Arrese, Unai Loidi, Mirari Altube, Irune Iturbe, Alberto Izagirre, Alberto Elkorobarrutia. **Publizitate eta erredakzio arduraduna:** Iratxe Bengoa. **Kolaboratzaileak:** Mikel Arroia, Gorka Etxabe, M.J. Aretxaga, Andoni Arana, Jennifer Nelson, Amaia Murgiondo, Amagoia Lasagabaster, Joseba Lopez de Armentia, Arantza Zuazabeitia, Inma Miguel, Loramendi E. E., Udala, Euskaltegia. **Inprimategia:** Eguzkigrif. **Tirada:** 2.500 ale. Aretxagazeta paper birziklatuan egiten da. **Lege gordailua:** SS378 / 94. **ISSN:** 1134-2609  
Aretxagazeta aldizkaria ez da kargu egiten aldizkarian adierazitako esanekin eta iritziekin.

**Aretxagazeta**

## Giacomo Rossini akordeoi orkestraren bisitaldia



### Liburu eta plaka bat jaso zuten oroigarritzat

Italiako Giacomo Rossini akordeoi orkestra gure artean izan genuen irailaren 10etik 14ra bitartean. Zapatu goizean udaletxean egin zitzaizen ongi etorria. Alkatea, zinegotzi batzuk, herriko akordeoi orkestrerako kideak eta beste hainbat lagun batu zen ongi etorrira. Oroigarri gisa, plaka bat, Euskal Herriari buruzko liburu bat eta Aretxabaletari buruzko gida liburua jaso zuten. Italiako akordeoi orkestrako zuzendariak, ondoren, bere esker ona erakutsi zuen egindako harrera beroagatik. Hemen igaro zituzten egunetan Gipuzkoako hainbat txoko bisitatzeko aukera izateaz gain kontzertuak ere eskaini zituzten: Loiolako Santutegia, Gasteiz eta Donostia bisitatu eta Aretxabaletan eta Hondarribin eman zituzten kontzertuak. Emanaldi hauetan Cristina Franzin, orkestrarekin batera etorri zen sopranoak ere abesti batzuk kantatu zituen.

Alexandro, Monia, Dabid eta Silvia akordeoi orkestrako lau neska mutilekin egoteko aukera izan genuen, eguraldiak asko lagundu ez arren, egonaldia zoragarria izan zela adierazi ziguten.

• Lehenengo aldia da Euskal Herrira etorri zaretena?

Bai, lehen aldia da.

• Zer iruditu zaizue Euskal Herria?

Oso berdea da. Landaretza haundia dago hemen. Gu bizi garen lurraldea ere hau bezala menditsua da, baina ez dago hemengo landaretzarik. Hemengo animaliak, ardiak, behiak... desberdinak dira.

• Zenbat kontzertu emango dituzue?

Bi, gaur Aretxabaletako parrokian eta bihar Hondarribin emango dugu bestea.

• Zer da gehien gustatu zaizuena?

Gastronomia, hemengo janaria. Herriko elkarteetan jan dugu eta asko gustatu zaigu hemengo janaria. Denetik jan dugu, filetea, oilaskoa, entsaladak, sopa...



Italiako orkestrako zuzendariak oroigarria jaso zuen unea

**ZARAIA  
TABERNA**

Goizeko 5,30etatik  
zure zerbitzuan

MANTEKA ANAIK

ESKORIATZA  
Tfno 714345  
Bazkari  
eta  
afariak  
ERRETEGIA  
MENDIOLA

Astelehenetan itxita  
ESKORIATZA

**OSKAR**


HARATEGIA  
Loramendi, 1  
☎ 79 71 69

**JOSU  
HARATEGIA**

Urdaitegia-Gozotegia  
kroasantegia  
Janari prestatuak

Mitarte, 1 ☎ 77 03 08

**T  
X  
i  
L  
A  
R  
R  
A**



**ELIKADURA  
BEREZIA**

Durana, 35  
Tfnoa: 79 10 15

Loramendi, 9  
Tfnoa: 79 44 28  
ARETXABALETA

*Okindegia - Gozotegia*

*Aretxabaleta*

Mitarte, 1-Tfnoa: 77 00 81  
Aretxabaleta  
Bertako okina

# Euskal giroan datoz San Migelak

Gero eta indar gehiago hartzen ari diren San Migel jaiak datorren astebukaeran ospatuko dira. Eguakotz arratsaldean, bonba japoniarrek eta erraldoi eta buruhandien kalejira izango da akordeoi orkestrak lagundurik. Gauean, Hiruatx taldeak antolatutako "Ai ama! hau panorama" Almeneko irakasle eta gurasoek sortutako obra ikusi ahal izango da Zaraia zineman. Kanean, berriz, Tulio antzerkilari argentinarraren kale antzerkia egongo da.



Zapatua izango da egunik garrantzitsuen

## Baserritar jantzita

Zapatua izango da egunik garrantzitsuen. Goizean goizetik baserritar jantzita irtengo du jendeak kalera. Eguraldiak laguntzen badu behintzat kanean animazio handia egongo da: sagardo eta talo postuak, gaiteroak, trikitilariak, joteroak... Honez gain, artisau ferixa egongo da herriko plazan eta produktu biologikoen ferixa Durana kanean. Azken hau, aurreko urteetan moduan patxaran lehiaketaz lagunduta.

Iaz moduan, herri bazkaria antolatu du talde antimilitaristak, Marmitakoa egongo da jateko gazta eta menbriloaz lagundurik.

Arratsaldean Hala Gera gaiteroak lehenengo eta Txantreako joteroek ondoren alaituko dute kalea. Ondoren, gero eta herrikoia goa bihurtu den Beinke-Loramendi dantza dantzatuko da. Jendea plazan batuko da, batzuk dantzatzeko asmoz

eta ikusteko beste batzuk. Dantzaldiaren ostean, Ramon Erañari omenaldia egingo zaio, herri mailan dantza taldea sortzeko eta bultzatzeko egindako lanagatik.

Gauean, bolo txapelketa, Ines eta Naiara trikitilariak, pelota partiduak eta goizaldera txokolatada egongo da.

Domekan, XVI. San Migel txirindulari txapelketa goizean goiz hasiko da. Eguerdian herri kirolek izango dute lekua herriko plazan. Pentathlon frogaz gain, Mikeltxo Saralegi ere hemen izango da bere indarra eta abilezia erakusteko.

San Migel jaiak domeka arratsalderako antolatuta dagoen mus txapelketaz amaituko dira. Plazako arkupeak mus afizionatuz beteko dira.

San Migel jaiak aurrekontu txikia duten arren (1.300.000 pta.), antolakuntzan talde askok parte hartu du (Jai batzordea, Loramendi E.E., Musika eskola, Talde Antimilitarista, Hiruatx, Murruxio M. E. eta herriko koadrilak), hori dela eta, ekintzaz beteriko jaiak izango ditugu.

## Cum laude



Mirian Urkiak "Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz" tesia aurkeztu zuen uztailearen 16an Gasteizko filologia fakultatean. Miren Azkarate izan zen tesiaren zuzendaria eta cum laude goraiamena jaso zuen aurkeztutako lanak. Mirian finlandiar eredu batean oinarritu da tesia egiterako orduan. Ia 400 orri batzen dituen tesiak, euskal deklinabidea eta aditz jokuak ematen dituzten aukera desberdinen programazio osotua erakusten du, besteak beste. Bere esanetan, beste lan batzuren oinarria izango da hau. Azken urte hauetan lan honetan buru belarri aritu ondoren, merezitako emaitza lortu du. Jakina, bukatutakoan merezitako oporrak jaso zituen Mirianek. Zorionak!

Mirian euskal filologian lizentziatua da eta gaur egun Donostiako UZEI zentruan lan egiten du.

## GEMES

- Depilazio definitiboa
- Makilaia
- Kutisaren garbiketa

Durana, 40-2 ☎ 79 99 18  
Aretxabaleta

## SAGASTA

### ELEKTRIZITATEA

Elektragailuak  
Elektra-instalakuntzak

Otalora, 14  
Tfnoa: 79 16 10

Mitarte 9 • Aretxabaleta • Tfnoa: 79 92 01



### Katakumeak aurkitu eta zaindu

Argazkiko mutikoek erreka bazterrean aurkitu zituzten eskuetan dituzten bi katakumeak. Ama inguruan ez zutela ikusirik, katakumeak beraiek zaintzeko hartu zituzten. Orain artean kartoizko kaxa batean eduki dituzte. Esnea eta gibela eman diete jateko. Izena ere badute, batek Gloton eta Mutur-zuri besteak. Izen aproposa azken hau, bi katuak zuri-beltzak baitira.

### Peoi lurperatzaile lanpostua

Peoi lurperatzaile lanpostua kaleratu du Udalak. Lanpostu honetarako ez da titulazio berezirik eskatzen. Oinarriak hartzeko udaletxetik pasatu beharko da eta ondoren instantzia aurkeztu.



### Haur dantzarien eguna

Haur dantzarien eguna ospatu zen joan den domekan. Deba Garaiko herrietatik 250 dantzari inguru hurbildu zen. Goizean, hiru lekutan dantzatu zuten: Herriko plazan, Mitarte kalean eta Gernikako plazan. Arratsaldean, alardea dantzatzeko plazan elkartu ziren guztiak. Egun zoragarria pasatzeko aukera izan zuten dantzariak eta baita plazara hurbildu zirenek ere.

### BENGOA URDAITEGIA

Bertako okelak eta mortzilak

Durana, 9  
Tfnoa: 79 19 79

BEIRALAN



### KRISTALDEGIA

Loramendi 10 ☎ 79 81 78  
Aretxabaleta

### OSKAR GARAJEA

Basabe Poligonoa, A-2-4  
Tfnoa: 79 98 74  
ARETXABAleta

### Dorleta Taberna

Loramendi, 8  
Tfnoa: 79 94 15  
ARETXABAleta

### IMANOL JANARI DENDA

Harategia  
BEREZIKI Urdaitegia  
Fruitategia

Gorbea kalea ☎ 79 05 83 ARETXABAleta



### BASTER-ALDE JATETXEA

SASOIKO  
JAKIAK  
GIRO  
ONENEAN

Galartza auzoa Tfnoa: 79 24 58 ARETXABAleta



## Correos Lezama merkatal zentrura aldatuko da lau hilabetetarako

Correos Lezama merkatal zentrura aldatuko da laster, gaur eguneko lokalean egin behar diren obrak direla eta. Dagoeneko aldatuta egon beharko litzateke baina arazo txiki batzuk gertatu dira eta oraindik betiko lekuan jarraitzen du. Obrek lau hilabeteko iraupena izango dute eta tarte horretan behar den moduko egokitzapenak egingo dira oraingo lokalean, besteak beste informatizatu. Obren aurrekontua 28.417.917 milioiokoa da.

## Extra, Deba Garaiko egunkari berria



# EXTRA

Deba Garaiko egunkaria - Diario del Alto Deba

1997ko irailak

24

Asteazkena

Tipo urtea 5. zenbakia
Gogoazko tokian aldatuak ez
35 pelta.

### EXTRA arrancará definitivamente el 1 de Octubre

**Kaixo irakurle:**  
EXTRA-ren 5 lehen zenbakiak bere ditugun ordu iriti da Deba Garaiko gehigarri honen praktika aldiari amaiera emateko.  
Egunotan jaso dugun esperientzia handia izan da eta egindako saioak emaitza onak jaso ditu.



**Estimado lector:**  
Con los cinco números de EXTRA publicados desde el pasado día 19 hemos cubierto ya la fase previa del lanzamiento de este nuevo medio de información local y comarcal del Alto Deba.  
La prueba ha resultado positiva y la experiencia acumulada importante. En los próximos días hare-

Irailaren 19an Extra izenarekin Deba Bailarako egunkari berria argitaratu zen. 16 orrialde ditu eta gaztelera eta euskara tartekatzen ditu. Egunkariak eskualdeko zortzi herrietako eta Aramaioko albisteen berri emanten du. Gai orokorrari buruzko eta herrietako berriak jasotzen ditu. Astelehenetan ezik egunero izango da salmenta lekuetan.

## Eguneko zentro psikogeriatrikoa Arrasaten

Datorren urrian hirugarren adineko pertsonen arazo psikiko eta fisikoei erantzuna emango dien eguneko zentro psikogeriatrikoa zabalduko da Arrasateko Uribe auzoan. Zentru honek pertsona nagusiei errehabilitatzeko eta komunitatean jarraitzeko aukera eskaini nahi die. Adin hauetako pertsonak sufritzen dituzten dementzia, afektibitate arazoak... kontutan izanik, gai hauetan espezializatutako tratamendu pertsonalizatua eskaini nahi du, beti ere, zainketa asistentziala eta errehabilitazio kojnitibo eta fisiko baten barruan.

Eguneko zentro psikogeriatrikoaren inguruko berri gehiago jaso nahi izanez gero, udaletxeko gizarte zerbitzuetara jo daiteke.

## Jubilatuen eguna

Jubilatuek zita garrantzitsua izango dute urriko lehen zapatuan. Jubilatuen eguna ospatuko den egun honetan, goizeko 11etan salda dastatzeko aukera izango da Basotxon. 12,30etan meza izango dute Andra Mari parrokian eta ondoren ordu 2etan bazkaria kiroletxean. Aurtengo menuan fritoak, entsalada mixtoa, bildots erreka eta postrea izango dute. Bazkalostean opari banaketaz gain, Ludi Berri taldearen abestiek dantzatzeko aukera zoragarria izango da.

Urtetik urtera egun honetan parte hartzen dutenen kopurua haundiagoa izaten da. Aurten ere jubilatuko asko animatuko da.





# Lubia

Oinetakoak

Poltsak • zapatak • gerrikoak

Mitarte 14 • ☎ 79 16 00 ARETXABALETA  
Biteri 1 • ☎ 79 66 53 ARRASATE



TABERNA


# ARLUTZ

MITARTE, 16 • ARETXABALETA • TFNOA.: 79 32 34

# EUSKAL HERRIKO FAUNA ETA FLORA (1)

## Landare haragijaleak

Landare berezi hauetaz pentsatzen dugunean beti ere Hollywood-ek duela mende erdi erakutsi zizkigun irudi haiek datozkigu gogora, non lorontzi batean bizi zen metrobeteko landareak ahoa zabaldu eta gizon oharkabearen ezker eskua instant batean irensten zuen.



Euskal Herrian ere baditugu intsektuez elikatzen diren bi landare

**E**ra honetako munstroak irudimen handiko gionista baten buruan baino ez dauden arren, intsektuetaz elikatzen den hainbat landare bai existitzen da munduan zehar. Euskal Herrian bertan ere baditugu bi adibide:

### Drosera (*Drosera rotundifolia*):

10-20 zm-tako garaiera har dezakeen lore zuridun landare honek, oinaldeko hosto iletsuetan dauka bere elikadura bitxiaren gakoa. Intsekturen batek ile izugarri sentikor horiek ukitzen dituen momentuan hostoak jariakin itsaskorra isuriko du intsektua

bereganatuz. Jariakin honek intsektua liseritzeko beharrezko entzimak ere baditu. Azkenik hostoa itxi egingo du landareak.

### Muki belarra (*Pinguicula vulgaris*):

Landare honen lore moreak ere 6-20 zm-tako altueran kokatzen dira eta droserak bezalaxe oinaldean dozena erdi hosto itsaskorreko erroseta erakusten digu. Bertan pegaturik geratzen den intsektua liseritu besterik ez du egin behar.

Landare hauek gure mendiotan barreiaturik dauden ekosistema bitxi eta hauskor batetako partaide

dira. *Sphagnum* generoko goroldioak ugari diren tokian beste espezie adierazkor batzuekin zoi-kaztegiak (turberak) osatzen dituzte.

Drosera eta mukibelarra garrantzi handiko landareak ditugu. Alde batetik gure mendietako biodibertsitatea haunditzen dute, bestetik medikuntza tradizionalak sendabelar kontsideratu izan ditu mendeetan zehar, eta azkenik ez da ahaztu behar kate trofikoari buelta eman dioten izaki bitxiak direla, izan ere oraingoan landarea baita animalia jaten duena.

Mikel Arroiabe



# LASAGABASTER

## Zure Konfiantzazko Denda

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE  
TFNOAK.: 79 27 27 / 79 13 55

# OPEL

## Garaje T. NORTE, S.L.

Zerbitzu Ofiziala

■ Kotxe marka guztien konponketak

■ Zerbitzu guztiak



Basabe Poligonoa, A-1-3 •

Tfnoak: 79 62 65 / 79 20 86 /

Fax: 79 62 65 •

ARETXABALETA



# Inaxio eta Pedro Galdos, birkiak, Jesuitak eta misiolariak

Aretxabaletatik gazteak zirela joan ziren baina jaioterria gogoan dute eta lau urtean behin etortzen dira. Pedro eta Inaxio Galdos birkiak, Jesuitak eta misiolariak dira. Inaxio Indiako Gujerat aldean dago bertako Adibasi aborigenei laguntzen. Pedro, berriz, Venezuelako Caracas hiriburuan eskola bateko maixu da.

• **Birkiek elkarrekin jarraitzen dute normalean, eta zuek bakoitza kontinente batean zaudete?**

Bai, baina hori ere hona da norberaren garapenerako. 16 urte egon ginen elkar ikusi barik. Orain gehiago ikusten dugu elkar. Aretxabaletara lau urtean behin etortzen gara eta saiatzen gara biok batera samar etortzen. Hona oso gustora etortzen gara, baina gure bizitza Indian eta Ameriketara dago.

• **Momentu honetan zertan diharduzue?**

**Inaxio:** Indiako Gujerat aldean Adibasi aborigenekin lanean ari naiz. Hiru arlo lantzen ari gara. Lehena, iraultza berdea deitzen dioguna da. Nekazaritzaz zerikusia du, euri gutxi egiten duenean eta zikutea sortzen denerako urez hornitu dugu lurraldea. Horretarako ur putzuak... eginez. Bigarren iraultza zuria deritzona da. Umeen elikadurarako bufaloak erosi ditugu. Azkenik, hezkuntzako iraultza lantzen gabilta. Hezkuntza eta nutrizio proiektu bateratua da. Egu-nero 2.600 ume elikatu behar ditugu.

**Pedro:** Venezuelako Caracas hiriburuko San Ignacio ikastetxean lan egiten dut, bertako maixua naiz. Nik pertsonaren garapenerako garrantzi handia ematen diot eskolatik kanpoko heziketari. Loiola zentrua zuzentzen dut eta bertan gazte eta nagusien taldea dago; beraiekin mendira irteerak egiten ditut. Mendi aldeko herrixketan ere eraiki ditugu eskolak, honekin batera, jantziak egiteko artisaun tailer batzuk ere jarri ditugu martxan.

• **Pedro, mendizale gogorra**

**zaitugu hortaz...**

**P:** Bai, hala da. Venezuelako "Cinco Aguilas Blancas" deitzen diren bost mendi elurtuetan meza eman nuen lehena izan nintzen. Mendi asko igo dut. Orain urtebete, mendizaletasuna bultzatzeagatik, Venezuelan ematen den kirol mailako medala haundiena jaso nuen Rafael Caldera bertako lehendakariaren eskutik.

• **Herri garatuetatik dirulaguntza asko heltzen da zuein proiektuetarako?**

Orain lehen baino gehiago, baina beharrak ere gero eta gehiago dira. Hemengo laguntza txikiena harako asko da. Orain urte batzuk esaterako, Venezuelako dolar batek 4 bolibar balio zituen eta orain ia 500 bolibar.

## "16 urte egon ginen elkar ikusi barik"



*Inaxio eta Pedro txikitako argazki batean. 1934. urteko otsailaren 3an ateratakoa da.*



*Inaxio eta Pedro Galdos Aretxabaletan egon dira*

Indian, berriz, lehen amerikar dolarra, 10 rupia ziren eta orain 36 rupia. Rupiaren balioa bajatu egin da baina ez bolibarraren proportzioan. Momentu honetan, Venezuelako egoera nahiko txarra da baina itxaropena ez dugu galdu, gazteak lan egiteko gogoz eta borondate onakin datoz.

• **Zer da hango bizitzatik ikasi duzuen?**

**I:** Pasiencia edukitzen, lasai egoten. Hangoek bizitza ulertzeko duten lasaitasuna.

**P:** Venezolanoa oso alai da, po-break izan arren, beti ateratzen dute alaitasuna barrendik. Oso alaiak, abegitsuak eta eskuzabalak dira.

• **Horrenbeste urte kanpoan egon ondoren euskara ez zaizuela ahaztu ikusten da?**

Ez, euskara ez da guztiz ahazten. Guk orain 50 urte egiten zen euskara egiten dugu. Ahaztu egiten da, baina ahalegina egin ezker berez irretzen du. Lehen bi egunetan galduta egoten da, baina gero irten egiten du. Aretxagazeta irakurtzen dugu, ondo etortzen da gogoratze.

• **Urte guzti hauetan anekdotarik izango duzue kontatzeko...**

**I:** Indiarra joan nitzenean, Aretxabaletako banda inauguratu zen eta bandak eman zidan azken agurra. Nire azken hitzak "eutsi euskarari" izan ziren. Orduan betiko joan ginen, gehiago ez etortzeko.

**P:** Mutikotan ez genekien erdaraz. Han eskola batean ipuin bat idazteko esan ziguten eta nik "Teníamos un caballo y se nos eskuto" idatzi nuen.

# Bailarako edo bailararako autopista?

**Vitoria-Gasteiz-Eibar autopistaren proiektua ez da berria. Proiektu zaharra da, hirurogehiko hamarkadan pentsatu ondoren, gaur egun berriz jaio dena. Orduetik hona izen desberdinekin ezagutu dugu, Urbina-Maltzaga, Eibar-Vitoria eta azkenik Vitoria-Gasteiz-Eibar.**

Azken urte hauetan iritzi desberdinak kaleratu dira Gasteiz Eibar autopistaren inguruan. Autopista honen ideia defenditzen dutenek, Gipuzkoa Europara sartzeko derrigorrezko atea dela diote, Europarekiko konesio ego-kia. Aldi berean, bailararen komunikazio arazoak eta honek Euskal Herri osoarekiko dituenak konpontzeko ahalmen haundiko bidea izango dela defenditzen dute.

Autopista honen inguruko herritarren iritzia jakiteko NIP-ak egin ziren 1994an. Bertatik irten-dako erantzuna ez zen garbi ezagutu. Autopistaren kontra sortutako hainbat taldek, Eguzki, Deba Harana bizirik... herritarren iritzia ez errespetatzea salatu zuten. Partehartzaileetatik % 80ak lehenengo bidea hobetzearen aldeko apustua egin zuela azpimarratu zuen Eguzki taldeak.

## **100.000 miloiko aurrekontua**

Autopistak 100.000 miloiko aurrekontua du eta zifra haundi hori ikusita finantzaketa nola egingo den oraindik ziurtatu barik dago. Autopista egiteko interesa jarri duten konstruktora batzuen

**“100.000 miloiko aurrekontua duen autopistaren finantziabiderako, A-8aren gestio baterakoiaz berba egiten da”**

adierazpenetan, 100.000 miloiko kostua duen autopistaren finantziazio pribatua ezinezkoa da eta beste autopista baten gestio baterakoiaz (A-8arena), proiektua zatika eginez edo lehenengo zati errentagarriena eginez bakarrik eraman daiteke. Laguntza publikoa haundia izan beharko dela diote konstruktorek, hau barik inbertsioaren errentagarritasuna kolokan jartzen baita. Alde batetik, trafiko kopuruari dagokionez arazo batzuk aurreikusten dituzte. Etxegarateko bidearen zabaltzeak eta Beasain-Durango errepideak,



*Autopistaren trazaua Antxustegi eta Landeta baserrien erditik pasatzen da. Apotzaetxe berrituak tunelean.*

dohainekoak biak, autopistako trafiko kopuruan eragina izango dutela kontutan hartzen dute, hain zuzen.

Beste aldetik, autopistaren explotazio eta mantenimenduak suposatuko duen gastuetan ere arazoa ikusten dute.


Foru Aldundiak orain hilabete batzuk peajeak biguna izan behar zuela azpimarratzen zuen, km.ko 10 pta. Konstruktora gehienek kopuru horren gainera iragarri dute peajearen kostua.

## **Datorren urtean hasiera**

Foru Aldundiak obrak datorren urtean hasiko direla esan du eta 2002. urterako trafikorako zabalik egongo dela.

Ibilbideak dituen 44 km.tan 12 tunel eta 11 bidezubi diseinatu dira, gehienak Gipuzkoako zatian, Gipuzkoako orografia Arabakoa baino konplexuagoa dela kontutan izanik. Aretxabaletako kasuan, tunel bi eta beste bidezubi bi ere joango dira.

Autopistaren trazatua udal-txean ikusgai dago irailaren 30a arte, hirigintzako bulegora zuzendu behar da.



herriko maldetan zehar hasierako zatiak trintxeran jarraituko du eta gainontzekoak

Egileor baserrian bizi den Antonio Zuazuaren etxetik 25 metrora pasako da autopista. Azken egunetan udal-txean auzokideekin egin diren batzarretan parte hartu du. Berarekin egon gara gai honen inguruan duen informazioa eta iritzia ezagutzeko.



Antonio Zuazua

• **Auzotarrek bilerak egin dituzue udaletxean autopistaren inguruan, zertarako izan dira?**

Autopistak eragina izango duten lurren jabeak eta auzokideak elkartu gara. Gure iritzia eman dugu bertan eta denon artean proposamen batzuk bota ditugu. Hil honen azkenerako epea zabalik dago alegazioak egin ahal izateko eta guk gure idatzia egingo dugu baldintza batzuk eskatuz.


• **Idatziak zeozertarako balioko duela uste duzu?**

Aldaketa haundirik ezin da egin, baina gauza txikiak konpon daitezkeela uste dut. Autopista gure etxetik 25 metrora pasako da eta urrunagotik pasatuko balitz gehiago gustatuko litzaidake.

• **Zer iritzi duzu Gasteiz-Eibar autopistaren inguruan?**

Gure bailarak bide egokiak behar dituela garbi dago. Autopistak sail asko ondatzen du eta gainera ordaindu egin beharko dugu. Lehengo bideak hobetu beharko lirake lehenengo eta autopista egitekotan hemendik Eskoriatzaraino tunelean egin dezatela.

“Autopista batzuendako bakarrik izango dela uste dugu, ez danondako”



**Eusebio Villar**  
GATZAGATARREN  
ALTERNATIBAREN  
ALDEKOA

Autopistaren alternatiba moduan, Gatzagatarrek lehenengo bideen konponketa sakona suposatzen duen proiektua aurkeztu zuten. Proiektu horren aldekoa dugu Eusebio Villar: “Ez dugu autopista bai ala ez planteatzen, Deba Bailararen beharretara egokituko den bide bat baino”.

• **Zer defenditzen du Gatzagako proiektuak?**

Guk uste dugu lehenengo bideen konponketa sakon eta behar den modukoa egin, gure bailarak behar duen bidea izatea lor daitekeela. Ez da proiektu berria. Gobernuak lehenengo egingakoa da eta bere garaian eginda egon behar zuena. Lehengo proiektu batean oinarritu gara, beraz. Bailarari begira hori dela uste dugu onena.

• **Zein abantaila ikusten diozue zuen proiektuari autopistarekin konparatuz?**

Denok uste dugu gure bailaran bide on baten beharra dagoela. Gure proiektua jende guztiarentzat izango da. Konponketa sakona da eta bailarako beharretara egokitua. Autopista ez da bailarakoentzat izango. Merkea izango da egunero pasatzen denarentzat, baina ez guztiarentzat. Europara begira, berriz, alternatiba nahikoa dago, N-1a, Etxegarateko desdoblamentua (egiten bada)...

• **Zuen alternatibak zein erantzun jaso du?**

NIPetan bigarren gehiengo jaso zuen. Baina hori zabaltzea komeni ez denez, ixildu egin zuten. Gatza eta Landa moduko herri batzuk ez dugu aukera gure alternatiba zabaltzeko. Egin duguna alperrik egin dugula ikusi dugu. Gure proiektuaren alde ezin dugu ezer egin.

• **Autopista egingo dela uste duzu?**

A-8aren prorroga egiten bada bai. Diru interes handiak daude hor atzean. Egiten bada, bildur bat daukat, hemengo konstruktoreekin egin beharrean kanpokoekin egitea. Urte asko eramango du egiteak, besteok hemen egongo gara ditugun errepideak konpondu barik.

# Arlutz futbito txapelketa urritik maiatzera bitartean jokatu da

Orain artean Arlutz futbito txapelketa uztai-lean zehar antolatu izan da, aurten lehen aldiz urritik maiatzera bitartean ere jokatu da.

Udan izaten duen arrakasta ikusita urtean zehar ere antolatzea pentsatu dute antolatzailleek. Jakina, uztai-eko txapelketak jarraitu egingo du.

Txapelketa urrian hasiko da eta zapaturo-zapaturo jokatu da goiz eta arratsaldetan. Izena emanda duten taldeek bi buelta jokatu beharko dituzte.

Danera 14 taldentzako lekua dago eta 11 taldek eman dute izena: DDK, Taid, Toblerone, Kemen, Atletico Zelaia, Peña Hugo, MG Manole, Perro cerdo, Cutre, Deuntajo eta Gallegoak.

Talde gehienak atxalbaltarrak dira, kontutan



Partiduak zapaturo jokatu dira

izan behar da Arrasaten Zaldibar txapelketa jokatzen dela. Honek nabarmen gutxitu du parte hartzaileen kopurua. Uztai-lean, Arrasate, Eskoriatza eta Bergarako taldeek ere izena ematen baitute.

Berrikuntza moduan antolatzailleek kolore desberdinetako kamisetak atera dituzte taldeentzat, azken hauek Mugarri-Mendiola etxearen babesean.


Txapelketan izena emateko epea datorren zapatuan amaitzen da, beraz, oraindik garaiz zaudete apuntatzeko.

## Udaletxeari eskaera

Euria egiten duenean futbito kantxa labainkorra egoten da eta istripuak eragotzi nahian udaletxera eskaera egin dute kantxa margotzeko. Momentu honetan udaltxearen erantzunaren zai daude.

## Fran Migel Alicantera ajedrezean jokatzer

Datorren astelehenean Alicante aldera joango da Fran Migel bertako Torrevieja herrian burutuko den xake txapelketa jokatzer. Fran Euskadiko ordezkaria izango da eta xakeko maixu haundien aurka jokatu beharko du. Alicanten igaroko dituen bederatzi egunetako egonaldia Xake Federazioak ordainduko dio. Zorte ona opa diogu datozen egunetarako eta ea berri pozgarriak ekartzen dizkigun bertatik.



## Jauregi Okindegia

Otalora, 10  
Aretxabaleta



Lurrindegia  
Opari-denda

Mitarte, 18 ☎ 79 38 59

## LEIBAR ARRAINDEGIA




Mitarte Kalea, 1 - Tfnoa: 77 13 79  
ARETXABAleta



## Mitartegarai Jatetxea

- Nekazaturismo etxea
- Bertako sukaldaritza

Arientza auzoa • Tfnoa: 79 17 51  
ARETXABAleta



EGUZKIGRAF  
inprimategia

ARETXABAleta


Industrialdea 1-0-4  
Tfnoa: 791844  
Faxa: 792941

# Ane Miren Güemes

## Arku tiraketan, indarra, kontzentrazioa eta teknika ona behar da

Gure artean gutxi praktikatzen eta ezagutzen den kirola da arku tiraketa. Baina bada gure herrian kirol hau praktikatzen duenik.

Ane Miren Güemesek Mankomunitateak antolatutako ikastaro batean eman zituen arku tiraketako lehenengo pausoak. Hala ere, ondorengo urteetan ez zuen kirol honetan jarraitzeko aukerarik izan. Iazko urtarrilean berriz, Bergaran sortu zen talde batetan praktikatzen hasi zen.



### “Jendeak kirol aspergarria dela uste du baina praktikatzen duenarentzat ez da aspergarria”

#### • Nola hasi zinen kirol hau praktikatzen?

Mankomunitateak antolatutako arku tiraketako ikastaro batean hartu nuen parte. Iazko urtarrilean, berriz, lagun talde bat elkartu eta taldetxo bat sortu genuen Bergaran eta jaurtiketa batzuk egiten hasi ginen. Momentuz ikastetxe bateko gimnasioan praktikatzen dugu. Kanpoan ez dugu oraindik jaurtiketarik egin.

#### • Noiz eta nola praktikatzen duzu?

Astean bi aldiz joaten naiz Bergarara. Lehenengo 10 minutuetan beroketa ariketak egiten ditugu, besoak, behatzak... Gero geziak botatzen hasi aurretik arkuarekin bakarrik praktikatzen da, hau berotu beharra dago eta.

#### • Zer ezaugarri eskatzen ditu kirol honek?

Kontzentrazioa eta teknika oso

garrantzitsuak dira kirol honetan. Kontzentrazio on batek teknika hobea izaten laguntzen du. Bestalde, indarra ere garrantzitsua da, besoetan, behatzetan...

#### • Kirol arriskutsua dela esan daiteke?

Bai, arriskutsua da eta ezin da edozein tokitan egin. Benetazko geziak dira eta non botatzen den kontuz ibili beharra dago, horregatik oraindik gela itxi batean entrenatzen dugu.

#### • Jendeak nola erantzuten du kirol honen aurrean?

Kirol ezezaguna denez, jendeak kuriositate handia azaltzen du.

Hala ere, jendea aspertu egiten da ikusten eta kirol aspergarria dela uste du. Agian ikusteko aspergarria izango da baina ez praktikatzeko. Uste baino faktore gehiago hartu behar dira kontutan arku tiraketan.

#### • Kirol hau praktikatu edo zer den ikusi nahi duenak zer egin dezake?

Ateak zabalik ditugu eta nahi duena etor daiteke kirol hau ikusi edo praktikatzera. Gero gustatuz gero, ikastaro bat egitea da hurrengoko pausoa.

Hemen inguruan kirol hau praktikatzeko club ugari daude: Legazpin, Gasteizen, Donostian, Beasainen... Badago club hauetara mugitzen den jendea.

#### • Aurrera begira zer asmo dituzu?

Aurrera begira teknika eta kontzentrazioa hobetzea da nire helburua eta hemen inguruan antolatzen diren txapelketetan parte hartzea.

**LASA AGUILERA**  
Aholkularitza

- Fiskala
- Kontablea
- Juridiko/laborala

Andra Mari Auzunea, 3  
☎ 79 29 26

**JOSE MARI**  
bodegaia

- < Eguneko menua
- < Bataioak
- < Jaurtazteak

Nafarroa, 6 • Tfnoa: 79 20 45  
ARETXABALETA

**SEGUROS LAGUN ARO**  
ASEGURUAK

Euskadiko Kutxa  
Taldekoa

Errekabarren, 20 behea  
20.550 Aretxabaleta (Gipuzkoa)  
Tfnoa: (943) 79 77 00 - 79 78 11

**MEMESA S.L.**

*Industriaren alde*

Santa Kurtz, 25-27  
Tfnoa: 77 11 75  
ARETXABALETA



## “San Migelek indar handia hartu dute, euskal giro polita egoten da”

Magisteritza eta pedagogia ikasi ondoren, Pausoka haur eskolan txikienekin lanean dihardu Maite Ortiz de Zaratek. Urtebeteko 13 ume ditu aurten beregain, horietatik hiru neska eta gainontzeko guztiak mutilak.

• Zenbat ume berri hasi dira aurten Pausokan?

Nire gelan zazpi eta beste getlan 11.

• Orokorrean neska ala mutilak jaiotzen direla uste duzu gehiago?

Normalean erdi eta erdi izaten da. Aurten esaterako nire gelan hiru neska eta hamar mutil ditut.

• Zein ariketa egiten duzu umeekin?

Aktibitate desberdinak, elkarrizketa, kontzentrazio ariketak, motrizitate ariketak...

• Zein adineko umeak gustatzen zaizkizu gehien?

Aurten ditudanak. Oinez ikasi berriak dira eta lehenengo berbak esaten hasten dira. Oso barregarriak eta salauak izaten dira, gainera garapen handia nabaritzen da adin honetan.

• Zer ikasi duzu umeengandik?

Behin zurekin konfidantza hartzen dutenean, lotura handia sortzen da bion artean. Umeentzat hain garrantzitsuak diren beharrak betetzen ditugu: janaria, loa, maitasuna... eta lotura handia sortzen da gure artean.

• Zer da gogorrena?

Bazkal ordua. Batzuk jatun onak dira baina beste batzuk...

• Zein izen jarriko zenieke zure seme-alabei?

Betiko izenak, izen arruntak.

• Lanetik irteerakoan zer egiten duzu?

Aurten aerobica eta ingelesa.

• Herriko zein jai duzu gustokoen?

Andramaixak, baina asko galdu dute. San Migeletan, berriz, gero eta giro hobea egoten da.

• Zer da San Migeletatik gehien gustatzen zaizuna?

Egoten den euskal giroa, ferixa, sagardoa, taloa...

• Zein kirol praktikatzen duzu?

Aerobica, mendia eta batzutan patinetan ibiltzen naiz.

• Zer du Aretxabaletak beste herri batzuk ez dutena?

Jende jatorragoa eta sanoagoa orokorrean.

• Pertsona batengan zer baloratzen duzu?

Zintzotasuna.

• Non egon zara aurtengo udan?

Lehenengo hamabostaldian, Pragan, Vienan eta Budapesten eta beste astebeete Tenerifen.

• Bizitzeko adinik onena?

Hogeitik aurrera, daukotena ona da.

• Zer dauka polita udazkenak?

Paisaiaren kolorea.

• Entzutea ala berba egitea gura-go?

Biak gustatzen zaizkit. Berritsua naizela esaten didate baina entzuteko ere balio dudala uste dut.

## KOMIKIA

### EGUNEKOTUAK GAUDE JADA

Mikel Arroiabe





rain urte batzuk, San Migel jaietan aintzinako bataioa eta hurrengo urtean ezkontza egin ziren. Baliteke ospakizun berezi hauek beren jatorria hirurogehiko hamarkadan egin zen beste honetan izatea, azken honek San Migel jaiekin zerikusirik ez izan arren. 1960. urteko ekainaren 19an, domeka arratsalde batean, Luistarren eguna ospatzeko aintzinako euskal ezkontza ospatu zen Aretxabaletan. Herriko heldu eta gazte koadrila batu zen jaia antolatzeko. Ezkontza dotorea izan zen, argazkiei begiratzea besterik ez dago. Jakina, egun honetarako erropak alkilatu eta eskatu beharra izan zen.

Kaletik irten eta txistularien soinuaz lagunduta desfile dotorea eginez abiatu ziren Ibarra futbol zelairano. Bertan aintzinako erara ospatu zen ezkontza. Jabier Iturbe eta Milagros Urreta izan ziren ezkonkideak. Ostean, arrea hartuta kalera jeitsi ziren guztiak, ezkonkideak aurretik eta gainontzekoak atzetik zirela. Kale eta bazterretan jendetza izugarria batu zen ezkontza ikusteko, baita inguruko herrietakoak ere.

Askok gogoan izango dute oraindik, ezkontza egin eta hurrengo urtean egin zen antzerkia. Orduan, gaur egun baino gehiago mugitzen ziren herritarrak edozein ekintza antolatzeko.

Eskumako argazkietan: **Lali Zuazabeitia** eta **Jabier Igartua**. Atzean, **Andoni Antxia**. Jende artean: **Pedro Mendieta**, **Pili Zubillaga**... Bestean: **Miren Zuazabeitia** eta **Andoni Antxia**.

Eskumako argazkian goiko iladan: **Mari Tere Etxebarriarteun**, **Andoni Antxia**, **Sabino Larrañaga**, **Miren Zuazabeitia**, **Jasone Uribesalgo**, **Bernabe Makazaga**, **Karmelo Igartua**, **Kontxita Peña**, **Angelita Ibarzabal**, **Mariano Otxoa** (abadea), **Jabier Iturbe** (senargaia), **Clotilde Zubizarreta**, **Milagros Urreta** (andregai), **ezezaguna**, **Anita Bengoa**, **Rufino Peña**, **Angelita Larrañaga**, **Juanito Arriola**, **Jose Antonio Leanizbarrutia** (aguazila).

Beheko iladan (jarrita): **Juanito Axpe**, **ezezaguna**, **Lurdes Bengoa**, **Duni Zuazabeitia**, **ezezaguna**, **Koldo Iriarte**, **ezezaguna**, **Arantxa Leanizbarrutia**, **Lali Zuazabeitia**, **Jabier Igartua**, **Konsuelo Aranguren**, **Joseba Lasagabaster**.

Argazkia: Maite Ortiz de Zarate/Andoni Antxia

**BR** Amaia-Berri, S. L.

**Gasa- Klimatizazioa-Isurkor Teknologia**

Otatora, 18 behea

Tfno-Faxa: 77 06 49 ARETXABALETA

**DOIKALSE**

Elektroerosio  
lanak

Basabe Poligonoa C-1-1

Aretxabaleta

Tfno: 79 82 44

ARGAZKI

*UrKiola*

Tfnoa: 79 39 20

ARETXABALETA

# Euskal giroan



Gure herria txikia izan arren, urrun heltzen badakigula erakutsi dugu behin eta berriz, bai kiroletan, musikan... Oraingo honetan euskararen mundutik dator notizia. **Mirian Urkiak** "Euskal morfologiaren tratamendu informatikorantz" tesiagatik *cum laude* goraipamena jaso du. Uztaila erdialdera Gasteizko filologia fakultatean aurkeztu zuen tesia eta Miren Azkarate izan zen zuzentzailea. Aurrera pausu haundia da hau euskararentzat. Zorionak!

Euskararekin jarraituz, euskal telebistara egingo dut salto. *Hitzetik hortzera* bertso saioa urrian hastera doa. Kasu honetan, **Juan Luis Lekunberriren** sintonia entzuteko aukera izango dugu saioan. Beraz, bertsozaleak eta gainontzekoak adi entzun herriko musika gile honen sintonia.

Telebistarekin jarraituz, aurrekoan Deba Garaiko

*Extra* egunkari berrian, "Aretxabaletako telebisinoaz berbetan" erreportaia irakurtzeko aukera izan genuen. Badirudi telebistaren proiektua aurrera doala, azken aldiaren ixilik badabil be. Ia ba, laster herriko telebistaren lehen fruituak ikusten ditugun. Ni itxoiten nago behintzat.

Telebistaz nahikoa berba egin dut eta herri aldizkarietara joko dut ondoren. Ez noa Aretxagazetaz berba egitera, baina aurrekoan atxabaltar bat ikusi nuen Irutxulo Donostiako astekaritan. **Nerea Altuberi** egin zioten kaleko galdera. Herri kiroliek ezagutzen zuen galdetu eta ilada luzea erantzun zuen. Erantzunetariko bat, oker ez banago behintzat, harri jasotzea izan zen. Guk San Migel jaietan **Mieltxo Saralegi** harri jasotzen ikusteko aukera ederra izango dugu. Domekan plazara hurbildu beharko da errekorrik egiten duen ikustera.

Jaietako giroan sartuta, beste atxabaltar bat aipatu behar da: **Ramon Eraña**. Beinke-Loramendi dantzaldiaren ostean omendua izango da, dantzako taldea sortzeko eta bultzatzeko egindako lanagatik. Aurrez zorionak.

Luze samar idazten ari naizela iruditzen zait. Behin hasita ezin gelditu. Gainera San Migelak datozela kontutan hartuta... Baserritar jantzia armaixotik atera beharko da. Baina pentsatzen hasita, non utzi nuen iaz baserritar jantzia?

Nire buruhaustek alde batera, jaietan ondo ibili eta asko ligau.

A R E T X A Z O K A

### LANA

- Kurtzebarri eskolak soinketa erritmikorako irakasle bat behar du. Harremanetarako deitu 79 00 49 telefonora.

### ETXEBIZITZA

- 160 m<sup>2</sup>-ko pabiloi industrialak alokatzen da, Aretxabaletako Basabe poligonoan, interesatuak deitu honako telefono hauekara: 79 28 41-79 74 37.
- Eskoriatzan etxebizitza salgai. San Pedro kalea 12 6ezk. Tfnoa: 91 50 80 320 (Madrilekoa) Leandro Mateosegatik galdetu.

- Gasteizen pisua osatzeko pertsona bat behar da. San Viator kalean (Avenidan). Alkilerria 22.000 pta. Interesatuak deitu 79 00 09 telefonora (Maiden).
- Aretxaletan ileapaindegi mixtoa alokagai dago. Solarium eta edertze aretoa ditu. Lokal argia da. Herriaren erdian. 60 m<sup>2</sup>takoa. Instalazio guztiak ditu eta funtzionamenduan. 77 12 70-79 94 39.

### DENETARIK

- Ikasleentzako etxebizitza alokatzen da. Santa Kurtz kalea. Guztiz hornitua. 79 47 04 (5etatik aurrera).
- Irailetik aurrera neska bat pentsio osoan hartuko duen familia behar da. Ikaslea: 79 74 73.
- Burgosen pisua osatzeko ikaslea behar da. Janari eta etxeko lanak egiteko pertsona bat daukagu. Harremanetarako: 79 51 10 (Saioa) /79 28 05 (Onintza).

- Animalien ongizateak kezkatzen bazaitu, jarri harremanetan ATEArekin (Animaliei Tratu Etikoa ematearen aldeko Elkartearekin) Gasteizko 334 posta-kutxatilan edo-ta (945) 13 60 35 eta (945) 12 05 48 telefonoetan.
- "Zero-Sette" soinu txikia salgai. (4 ahots). Berria. 169.000 pta. Tfnoa: 945 27 44 26.
- 4/5 plazatako karabana erosiko genuke. Tfnoa: 79 77 85.

**Zure iragarkia honako txoko honetan jarri nahi baduzu deitu 79 01 05 telefonora. Dohainik da.**






HITZ GEZIDUNAK

		Hegaztiekin alufuze Gas- eztanda	Eguzkian Banatu ez dalekeena	Masa Ez jakia	Poitskoak Jainko egipfara
		Laztanak Hari-bala			
*Izena Gola txikia	Lady ezaguna Agurra	Botika-mota Merkatua		Galdere- ezaugaria 499	Bokala Lehena
		<b>A</b>	Bokala Behetik gora joan	Natzen hau Bihotzeko higidurak	Bokala Kristoren ama hizkuntza
101 Modako jakintza	Eztenek egindako zauriak Nekazar tresna	<b>Z</b>			
		<b>O</b>		Norvegia- ko ibilgai- luffan	Erruma niako autoetan Bokala
Pozik dagoena	Ingunurak baino beherago- ko unek *Deltura	<b>K</b>			Usain txarrekoa bihuru
		<b>A</b>	Lapa errian Osagai bakarreko	37 graduak gora	Muska- nafa 49
Euskal sindikatura Munduratu galtuena		Boraa Ipar... ile	Gizon- izena Kontso- nantea		
	Lehengo Gipuzkoa Fruitu lehor				
Mila Loaldi arina	Haizen horiek Jo ta...		Nor pluraleko bukatera 11		Einstenioa
					Arto errian Bat
Neu- nerau			(Errep.) San Fermi- nako saila istitutua		

HABE

JEROGLIFIKOA



HABE

Noiz argitaratu da liburuak?

\* Soluzioak 18. orrialdean.

**Aretxagazeta aldizkariak egun erdirako pertsona bat kontratatu nahi du.**

**Eskatzen diren baldintzak:**

- Euskara ongi menperatzea (EGA).
- Diplomatu mailako ikasketak.

Kurrukuluma irailaren 26a baino lehenago Aretxagazetara (kultur etxea) ekarri beharko da edo 151 postakutxatilara bidali.

**Liburutegiko txokoa**



**O**raingo honetan Udal Liburutegian sartu diren azken liburuen berri eman nahi dizuegu, ikasturte berriarekin batera zer irakurria izan dezaten zein haur, gazte zein helduek. Haur gaztetxoentzat Disney etxeak eginiko orrialde mugikorrek bi liburu erosi ditugu "Dama eta arlotea" eta "Lehoi erregea". Zortzi urtetik aurrera irakurteko Joxe Arratibelen "Erramun eta Sahats negartia" ekarri dugu eta 10-11 urtetik aurrera irakurtzeko "Pesadillas" saileko hainbat liburu hartu ditugu eta "Los trapos sucios" Manolito Gafotas ezagunaren azken abentura ere bai. 12 urtetik aurrerako gaztetxoek Paloma Bordons idazle ospetsuaren "La tierra de las papas" liburu eta Jostein Gaarder, "El mundo de Sofia" idatzi zuenaren, "El enigma del espejo" liburu dute berriena; 14 urtetik aurrera-koentzat Xabier Mendigurenek atera berri duen "Obsexuen Kluba" ekarri dugu.

Helduentzako hainbat nobela erosi ditugu, tartean Rosa Monteroren "La hija del canibal", aurtan "Udaberriko nobela saria" jaso duena, Javier Reverte-ren "El sueño de Africa", Pauline Gedgeren "El papiro de Saqqara" nobela historikoa, Enrico Brizziren "Jack Frusciante ha dejado el grupo" eta abar. Bukatzeko Liburutegiko liburuen bat etxean duenari gogoratu liburuak bueltatu behar direla, beste batzuek ere liburuak irakurri ahal izan dezaten.

Joseba Lopez de Armentia



## URRIA

4

zapatua

## JUBILATUEN EGUNA

11etan salda Basotxon. 12,30etan meza Andra Mari parrokian, ondoren ordu 2etan, meza izango da kiroletxean. Bazkalostean dantzaldia Ludi Berri taldeaz.

5

domeka

## ZIKLOTURISTEN IRTEERA

Aretxabaleta-Arlaban-Urbina-Gamarra-Abetxuko-Eroski-Elorriaga-Martioda-Mendoza-Eroski-Gamarra-Urbina-Landa-Aretxabaleta. 80 Km.

## SAN MIGEL JAIK

Trikitilariak, herri bazkaria, artisau ferixa, ferixa biologikoa, Beinke-Loramendi dantza, Ramon Erañari omenaldia, pelota partiduak, txirindulari lasterketa, herri kirolak...

Ondo pasau!



## Ikastaroak

## TAILA IKASTAROA

Okila taldeak taila ikastaroa antolatu du. Urriaren 6an hasiko da. Astean hiru egunetan, astelehen, martizen eta eguaztenetan emango da arratsaldeko 6etatik 8etara bitartean Okila taldearen elkarteetan. Guztira 60 ordu. Hasierako mailatik hasiko da eta 16 urtetik gorakoei zuzenduta egongo da. Izen ematea, Okila tailerrean, udaletxean edo eta kultur etxean egin daiteke.

## ESKULAN IKASTAROAK

Kultura sailak antolatuta urrian hasiko dira eskulan ikastaroak. Izena emateko kultur etxera zuzendu daiteke (79 01 05).

Vitoria-Gasteiz-Eibar autopistaren trazatuaren proiektua publikora zabalik dago udaletxean irailaren 30a arte. Herritarrak hirigintzako bulegora zuzendu beharko dira horretarako.

BEHARREZKO  
TELEFONOAK

## Aretxabaleta

• Almen	71 49 07
• Aretxagazeta	79 01 05
• Basotxo	77 09 81
• Euskaltegia	79 21 68
• Gizarte-Laguntzailea	79 10 00
• Hezibide Elkarte	79 31 32
• Industrialdea	79 62 80
• Kiroletxea	79 64 61
• Kultur-Etxea	79 01 05
• Kurtzebarri Eskola	79 00 49
• Leniz Lanbide Esk.	79 79 00
• Liburutegia	79 10 00
• Loramendi E.E.	77 09 70
• Ludoteka	79 05 81
• Murruxio M.E.	79 93 74
• Musika Eskola	79 36 50
• Ortzadar	79 01 84
• Osasun zentroa	79 74 58
• Otalora	79 79 99
• Parrokia (Bulegoa)	79 18 42
• Pausoka Haur-Esk.	77 03 77
• Postetxea	79 28 31
• Santa Rita Ikastetxea	79 17 00
• Taxi Geltokia	79 22 33
• Udal Bulegoak	79 10 00
• Udaltzaingoa	79 10 52
• Urats Gain	79 99 11

## Udaltzaingoa

• Arrasate	79 14 39
• Bergara	77 91 06
• Eskoriatza	79 03 22
• Oñati	78 04 11

## Denetarik

• Eskualde-Ospitalea (Arrasate)	79 53 00
• Ertzaintza (Arrasate)	79 71 99
• Gurutze-Gorria (Bergara)	76 55 76
• Larrialdiak (Arrasate)	77 10 43
• Pesa (Arrasate)	79 14 19
• Renfe (Gasteiz)	23 20 20
• Renfe (Zumarraga)	72 15 15
• SOS Deiak	088
• Suhiltzaileak (Oñati)	79 28 00



Basabe Poligonoa A-15

☎ 79 34 28

ARETXABALETA

CONSUM EROSKI

BETI ZURE ZERBITZURA

Durana, 8

Tfnoa: 79 19 34

Aralar z/g

Tfnoa: 79 16 05

ARETXABALETA

ITURGINTZA

J.J

Tfnoa: 79 07 34/ 79 31 87



MECA

San Andres auzoa • Tel.: 79 50 12 / 79 59 99 • ARRASATE



RENAULT



dTi 100 CV

Zuzeneko Injekziodun Renault Turbodiesel Motor berria